



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



DATU OROKORRAK	
Izenburua	Lizentzia
“MUNDUKO KULTURAK” proiektua	Munduko kulturak © 2024 by Basurtoko Arte eta h.fisiko mintegia is licensed under CC BY-NC-SA 4.0
Inplikaturiko arloak, jakintzagaiak edo eremuak	Maila
Arte hezkuntza (musika eta plastika) eta H.Fisikoa	LH osorako
Saio kopurua	
3. ebaluazioan burutuko da eta 6/8 saio erabiliko dira	
Ikas-egoeraren markoa	
Testuingurua : Ikastetxeko ikasleriaren jatorria oso anitza da. Horrek, kultura ezberdinak lantzeko aukera ematen digu, ikasleria aberasteko helburuarekin. Guztion artean, beste herrialdeetako kulturetako hainbat esparru ezagutzen saiatzen baldin bagara, haiengana hurbiltzea errazagoa izango da. Eta aldi berean, beraien herrialdeen ikuspegi orokorra lortzeko atea irekiko dugu Abiapuntua: Zer egin dezakegu munduko herrialde ezberdinetako abestiak, jolasak, artea eta kultura orokorrean ezagutu eta ikasteko? Azken ekoizpena edo produktua: Ikasturte bakoitzean kontinente bat landuko da. “Munduko kulturak” eguna ospatzea, LHko ikasle guztiek parte har dezaten, hainbat ekintzen bidez: jolasak, abestiak, artea...herrialde ezberdinak ezagutzea.	
Proposamenaren xedea	
Munduko herrialde ezberdinetako jolas, abestiak, dantzak, kultura orokorrean ezagutzea, praktikatzea eta gozatzea.	



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



ARGUDIAKETA CURRICULARRA

Funtsezko konpetentziak

- a) Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia,
- b) Konpetentzia eleaniztuna,
- d) Konpetentzia digitala,
- e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,
- f) Herritartasunerako konpetentzia,
- g) Ekintzailetza-konpetentzia,
- h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Konpetentzia espezifikoak eta deskriptoreak

A.HEZKUNTZA

1.1 Bere ingurunetik hurbil dauden zenbait korronte, estilo eta generotako askotariko kultura- eta arte- adierazpenak ezagutzea.

KE1. KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2

2. Askotariko inguruneetako ondarea osatzen duten kultura- eta arte-adierazpenei buruz ikertzea, metodo zientifikoa erabiltzen hasiz eta hainbat bide eta baliabide erabiliz, norberaren pentsamendua eta kultura-nortasuna zenbait testuingurutan garatzeko.

KE2. HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3.1 Gorputzaren eta arte- adierazpeneko zenbait tresnaren adierazpen- eta komunikazio- aukera batzuk oinarritzko moduan erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsita



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



3.2 Oinarritzko zenbait adierazpen- proposamen sortzea, esperimentazio librearen bitartez, norberaren sorkuntza gozatuz.

KE3. HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.

4.1 Oinarritzko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan parte hartzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik kolaborazio-lanean jardunez

4.2 Sorkuntza- prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzako oinarritzko elementuak erabiliz eta errespetu- jarrera erakutsiz.

KE4. HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.

H.FISIKOAK

1. Jarduera fisikoak osasun globalean dituen ondorioak ezagutzea, emozioen eta gatazken kudeaketa landuz, osasun fisikoak, emozionala eta soziala indartzeko.

DESKRIPTOREAK:HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.

2. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako egoera psikomotorretan jardutea, nor bere burua ezagutzeko, autoerregulatzeko eta gaitasun fisikoak hobetzeko ekintza-eskemak barneratuz.

DESKRIPTOREAK:KPSII1, KPSII4 eta KPSII5.

4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera sozomotorretan moldatzea, autorregulazio-prozesuak jarrera enpatiko eta inklusibo garatuz, gizarte-trebetasunak baliatuz eta kooperazioko eta errespetuzko jarrerak hartuz, parte hartzen den guneetan gizarte-bizikidetzeta eta konpromiso etikoa lortzen laguntzeko.

DESKRIPTOREAK: HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3 eta KAKK1.

5. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako oposizioko/kolaborazioko egoera sozomotorretan elkarrekintzan aritzea, horrelako jardueren berezko ekintza-arauez eta -printzipioez jabetuz, informazio-eskaera handiko egoeretako jokabide motorra egokitzen hasteko eta kultura motorra eskuratzeko lagungarria izateko.

DESKRIPTOREAK:STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



ATAZA/JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA (irakasleentzat)

Hasierako fasea

- Erronka aurkeztu, egoeran kokatu eta lan-plana adostu.
 - 1- Ikasleek ideia- zaparrada bat egingo dute, eta bertan landuko den munduko kontinentearen kulturei buruz duten ezagutza eta eskolako “Munduko kulturak” jaialdian ikasi eta partekatu nahiko luketena adieraziko dute.
 - 2- Taldeak antolatuko dira (maialaka edo zikloka) eta praktikaren eta esperimentazioaren bidez ikasiko duten kultura ezberdinetako abesti, dantza, teknika artistiko eta jolas tradizionalak aukeratu ditugu.

Garapen fasea

- Aukeratutako kultura ezberdinetako abesti, dantza, teknika artistiko eta jolas tradizionalak landu
 - 3- Ikasleek praktika aktiboaren bidez ikasiko dituzte aukeratutako abestiak, dantzak, teknika artistikoak eta jolas tradizionalak, zuzeneko esperientzia eta kultura-aniztasunaren balorazioa sustatuz.
 - 4- Teknika artistikoetan, oraingo honetan eraikuntzak landuko dira. Maila/ziklo bakoitzean teknika ezberdin bat erabiliz

Amaierako fasea

- Erabakitako egunean “Munduko kulturak” eguna ospatu:
 - 5- Ikasleak beraien lanak jaialdi bateratu batean integratzen lagunduko dute, munduko kultura-aniztasuna irudikatuz eta lankidetzaz, elkarrekiko errespetua eta azken produktu kolektibo eta aberasgarri bat sortzea sustatuz.
 - 6- Jaialdian egindakoaren bideoak eta argazkiak, ebidentziak jasoko dira, ikastetxeko blogean eta geletara luzatuz. Horrela 3 “errealitate” ezberdinetan ebaluatzeko era lortuz: Geletan, Jaialdian eta grabaketan ikusitakoa auto eta koebaluazioa sustatuz.
 - 7- Jaialdiaren ondoren, ikasleek beren esperientziari buruzko gogoeta egingo dute, banaka eta taldeka egindako lana eta aurkeztutako kulturen aberastasuna aztertuko dute, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuko dituzte, eta beren eguneroko bizitzan aniztasunarekiko errespetu-balioak aplikatzeko moduak bilatuko dituzte.



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



METODOLOGIA

Sortutako ikas-egoera **metodologia aktiboetan** oinarrituta dago. Abiapuntua, ikasleen jatorria eta aurrezagutzak izango direlarik.. Ikasleak dira protagonistak eta modu aktiboan parte hartzen dute beren ikaskuntza-prozesuan. **Ikaslea ikaskuntzaren erdigunean** jarriz.

Irakaslearen eta ikasleen eginkizuna

- **Irakaslea.**
 - Gidariaren funtzioa beteko du. Ikasleei tresnak, estimulak eta esperientziak eskainiko dizkio.
- **Ikasleak.**
 - Ikaskuntzaren protagonista edo erdigunea izango da.

Edukiak aukeratzeko eta antolatzeko irizpideak (arte hezkuntza)

https://docs.google.com/document/d/1fAXzJ--7II8nb1XL_gVWCGpk2j4hdHaS/edit

Oinarrizko jakintzen banaketa

Baliabide didaktikoak

Ikas egoera lantzeko materiala **BATERATUA** : B. Didaktikoa + ikas egoera + gida didaktikoa

Ikas egoera digitala **HeFi**



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



Printzipioak

Aniztasunaren trataera: IDU, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala

IDUaren printzipioak kontutan izango ditugu gure programazioan, hurrengoko hauek lehenetsiz:

1. Printzipioa: Inplikatzeko modu ugari eskaintzea:

- Zer landuko denaren aukeraketa.
- Ebaluazio mota ezberdinak.

2. Printzipioa: Irudikatzeko modu ugari eskaintzea:

- Bideoak, testutik audiora, ZH hiztegia, irakurketa erraza.

3.- Printzipioa: Ekintza- eta adierazpen- modu ugari ematea:

- Dantzak, abestiak, jolasak, arte teknika ezberdinak.

Antolaketa

- **Ikasleen taldekatzea**

Aukeratutako ekintzaren arabera bakarka, binaka, talde txikietan edo talde handietan izango dira.

Talde heterogeneoak izango dira. Talde hauek ekintzaren arabera irakasleak edo beraiek aukeratuko dituzte.

- **Espazioaren antolakuntza:**

Musika gela, gimnasioa, patioa erabiliko ditugu.

- **Irakasleak antolatzea:**

Eskuartzeak eta eginkizunak banatu. Arloen arteko koordinazio bilerak.



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



Baliabideak

- [B.digitala](#)
- Ekintzak garatzeko beharrezko materiala:
 - H.Fisikoko materiala: pilotak, sokak, uztaiak, konoak...
 - Musika: ordenagailua, prestatutako B.digitaleko materiala...
 - Plastika: landuko dugun teknikaren arabera izango da.

EBALUAZIOA

Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



Proposatzen den ebaluazio motak ezaugarri hauek izango ditu: globala, jarraitua eta hezigarria.

Ikasleen ikaskuntza prozesuaren ebaluaziorako jarraituko den prozedura hurrengo da:

- **Hasierako ebaluazioa:** landuko dugun gaiaren inguruko aurre ezagutzak ikusi eta motibazioa sustatu.
- Ikaskuntza prozesuaren **ebaluazio jarraitua:** ebaluazio prozesuaren alderik garrantzitsuena da. Azken produktuari baino garrantzi gehiago emango zaio prozesuari, beraien garapena ikusiz.
- **Bukaerako ebaluazioa:** azkeneko produktua ebaluatuko da, eta baita norberaren autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ikas-egoeraren hasieran, garapenean eta bukaeran tresnak eta erremintak desberdinak erabiliko dira **ebaluazio formatiboa** egiteko:

- Hasierako ebaluazio-orria (irakasle/ikasle).
- Autoebaluazio-orria (ikasleak).
- Koebaluazio-orria (ikasleak).
- Elkarriketa ikasle eta irakaslearen artean (irakasle/ikasle).
- Lorpen-adierazleen jarraipen-orria (irakasleak).
- Grabaketak (irakasle/ikasle).
- Ikas-egoeraren balioespen-orria (ikasleak).
- Ikas-irakaskuntza prozesuaren ebaluazio-orria (irakasleak).

A.HEZKUNTZA

Irizpideak

Adierazleak

1.1 Bere ingurunetik hurbil dauden zenbait korronte, estilo eta generotako askotariko kultura- eta arte- adierazpenak ezagutzea.

1.1.Proposaturiko ekintzetan zenbait korronte,estilo eta genero aztertu, horiekiko interesa nabarmendu eta genero- ikuspegia txertatzen du.

Bere burua isladatzen, autonomia eta konfidantza erakutsiz.



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



2.1 Estrategiak garatzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeke, zenbait kanal eta sarbide analogiko eta digitalen bitartez, kolaborazio-lanean.	2.1.1. Kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa modu autonomoan bilatzeko eta hautatzeko estrategia ezberdinak erabiltzen ditu (bi kanal ezberdinetan informazioa baieztatzea...) taldean. 2.1.2. Informazioa bilatzeko kanal eta baliabide analogiko (entziklopedia, testu-liburu edo aldizkari espezializatuak) eta digitalak erabiltzen ditu. 2.1.3. Beste batzuek sortutako edukiak erabiltzeko eta banatzeko lizentzia errespetatzen du eta bere lanetan informazioa nondik atera duen adierazten du.
2.2 Hainbat inguruetako ondarea osatzen duten zenbait kultura- eta arte-adierazpenen esanahia konparatzea, horien bereizgarri diren elementu nagusiak analizatuz eta norberaren balorazio-irizpideak garatuz, elkarriketarako jarrera irekia eta errespetua erakutsita.	2.2.1. Zenbait kultura- eta arte-adierazpenen bereizgarri diren oinarritzko elementuak modu gidatuan aztertzen eta konparatzen ditu, norberaren balorazio-irizpideak adieraziz. 2.2.3. Kultura- eta arte-adierazpenei buruzko sentsazioak, emozioak eta gogoetak partekatzen ditu, errespetuzko elkarriketa bidez.
3.1 Gorputzaren eta arte- adierazpeneko zenbait tresnaren adierazpen- eta komunikazio- aukera batzuk oinarritzko moduan erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsita	3.1. Musika bere burua adierazten du, dantzaren eta gorputz-perkusioaren bidez sentimenduak eta emozioak adierazteko besteen proposamenekiko errespetua eta jarrera arduratsua erakutsiz.
4.1 Oinarritzko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan parte hartzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik kolaborazio-lanean jardunez	4.1. Musika sorkuntza- prozesuan entzute aktiboa bultzatzea soinuaren aukerak hautematen. Norberaren esperientzia eta bizipenetatik abiatuta irudimena sustatzeko helburuarekin.
4.2 Sorkuntza- prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzako oinarritzko elementuak erabiliz eta errespetu- jarrera erakutsiz.	4.2. Konposizio errazak interpretatzea eta inprobisatzea, ahotsaren soinu-aukerak erabiliz, gorputza eta musika-tresnak, adierazteko ikasleen ekarpenak errespetatuz. 4.2.1. Sorkuntza-prozesuan aktiboki parte hartzen du.



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



	4.2.2. Arte-hizkuntzatako zenbait elementu erabiltzen ditu (analogiko zein digitalak). 4.2.3. Errespetuzko jarrera adierazten du.
4.3 Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, zenbait komunikazio- estrategia analogiko zein digital erabiliz, prozesuaz eta lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.	4.3.1. Sormen-esperientziak ebaluatu eta partekatzen ditu, ahoz, idatziz, bideoen bidez... 4.3.2. Sorkuntza-prozesuaz gozatzen du, baita lortutako emaitzaz ere. 4.3.3. Besteen iritzia baloratzen du.
H.FISIKOA	
Irizpideak	Adierazleak
1.1 Jarduera fisikoa aisialdirako alternatiba osasungarri gisa antzematea, bizimodu aktiboak maila fisikoan dituen ondorio onuragarriak ezagutzen hasiz eta jarduera fisikorako eta esfortzurako jarrera positiboa hartuz.	1.1.1.Jarduera fisikoa aisialdirako alternatiba osasungarri gisa antzematen du. 1.1.2. Jarduera fisikoak onurak dituela ezagutzen du. 1.1.3.Jarduera fisikorako eta esfortzurako jarrera positiboa hartzen du.
1.2 Jarrera-hezkuntzarako, elikadura osasungarrirako, gorputz- higienarako eta jardun motorraren prestaketarako neurriak aplikatzea, erantzukizunak hartuz eta eguneroko egoeretan errutinak sortuz —istripuren bat gertatuz gero nola jokatu jakitea—.	1.2.1.Jarrera-hezkuntzarako, elikadura osasungarrirako, gorputz- higienarako eta jardun motorraren prestaketarako neurriak aplikatzen ditu. 1.2.2. Erantzukizunak hartzen ditu. 1.2.3.Eguneroko egoeretan errutinak sortzen ditu
1.3 Norberaren eta besteen gorputzaren irudia ezagutzea, norbanakoen artean egon daitezkeen aldeak onartuz eta errespetatuz, jarrera diskriminatzaileak baztertuz eta gatazkak elkarriketa bidez kudeatuz.	1.3.1 Norberaren eta besteen gorputzaren irudia ezagutzen ditu. 1.3.2.Norbanakoen artean egon daitezkeen aldeak onartu eta errespetatzen ditu 1.3.3. Jarrera diskriminatzaileak gaingitzen ditu. 1.3.4. Gatazkak elkarriketa bidez kudeatzen du.
1.4 Egoera motorretako dimentsio afektiboen garrantzia baloratzea, norberaren emozioak kudeatzen eta besteenak identifikatuz.	1.4.1.Egoera motorretako dimentsio afektiboen garrantziaz baloratzen du. 1.4.2. Norberaren emozioak kudeatzen ditu eta besteenak identifikatzen ditu.



BASURTO

Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net

www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17

Zankoeta 2
48013- BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



Ebaluatze tresnak (ebidentziak)

- Behaketa sistematikoa
- Prozesu honetako momentu desberdinetan **heteroebaluazioa**, **koebaluazioa** eta **autoebaluazioa** aurrera eramango dira.

Ebaluatze erremintak

- Errubrikak, kontrol orriak eta google formularioak
 - [Arte Hezkuntza musika jardun mailak](#)
 - [H.Fisiko jardun mailak](#)
 - 1. Errubrikak
 - [MUSIKAkoko errubrika](#)
 - [PLASTIKAkoko errubrika](#)
 - [H:FISIKOkoko errubrika](#)
 - 2. Galdetegiak (autoebaluazioa, 4. mailatik aurrera)
 - Autoebaluazioa
- [Hefi](#)



BASURTO
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

014108aa@hezkuntza.net
www.basurtoikastetxea.net

Tfno: 94 428 79 17
Zankoeta 2
48013- BILBAO



Kalifikazioa

Prozesu honen adierazpen kodetua da, araudiak ezarritako balorazio eskalaren arabera egingo dena:

- Ez nahikoa, Nahikoa, Ondo, Oso ondo, Bikain.

Bibliografia

- OINARRIZKO HEZKUNTZA. CURRICULUM DEKRETUA “2023/06/09an eguneratua”
- EAEKO IRTEERA PROFILA
- ARTE HEZKUNTZA eta H.FISIKO CURRICULUMA
- Arte eta H.Fisikoko mintegietan egindako programazioak